


Araiako Ajuria eta Urigoitia fabrikaren birgaitzea



AURKIBIDEA

Birgaitzearen ZERGATIA	3
Ajuria eta Urigoitia fabrikaren birgaitze proiektuaren ESTRATEGIA.....	5
PROIEKTUA	8
PLANOAK.....	16

-Ajuria eta Urigoitia fabrikaren birgaitzearen ZERGATIA-

-ZER-

Proiektu honetan Araiako Ajuria eta Urogoitia fabrikaren birgaitzea proposatzen da. Eraikinak berrogei urte baino gehiago darama inongo erabilerarik gabe eta azken hamarkadetan zehar eraberritze baten beharraren inguruan hitz egin da baina, **zer egin? Zein erabilera eman? Nolako birgaitzea egin? Noren eskuduntza da?**

Proiektu honetan zehar **lan profesionalak burutzeko espazio doigarriak** proposatzen dira Ajuria eta Urigoitiako fabriketan. Gazte jendeari zuzenguak egongo dira, hauek baitira araiako etorkizuna nolakoa izango den zehaztuko dutenak. Espazio hauek erabilera anitzekoak izan daitezke baina helburua gazte jendearen lan egiteko lekua Araiaren bertan izatea da.

Lan espazio hauetaz gain beste erabilera batzuk aurreikusten dira fabrikaren birgaitzea egin ostean. Nola ez, fabrikaren funtzionamendua nolakoa zen azalduko duen ibilbide ireki bat proposatuko da, hau da, **aire librean egongo den interpretazio zentro** bat egongo da. Beste alde batetik fabrikaren egitura zabala erabiliko da kontzertuak bezalako **gune zabal baten beharra duten erabilerak** burutu ahal izareko.*

*Araian urtero "Araiako Umore Antzerki Jaialdia" egiten da. 25 urte darama Euskal Herri mailan nahiko garrantzi handia duen ekintza honek eta Ajiurako azpiegiturak aproposak izan daitezke eskala handiagoko edo mota desberdin bateko antzezlanak egiteko.

-ZERGATIK-

Bere garaian fabrika honek tokiko biztanleriarentzako lan aukera garrantzitsu bat suposatzen zuen, hala nola etorkinentzako ere. Araiatarrek bizitza Araiaren bertan egiten zuten, hau da, **araian bertan kontsumitzen** zuten herriari etorkizun oparotsu bat emanaz. Gaur egun jada araiako biztanleriak ez du araiaren lan egiten hiriburuan baizik, Gasteizen. Horrek kontsumoa kanpora eramaten du herria ahaztuta utziz eta lo-herri batean bilakatuz.

Bestalde **lanpostu moten inguruan hitz egitea** beharrezkoa da. Arabar lautadak eskeintzen dituenak eskasak dira, batez ere nekazaritza eta abeltzaintza eremukoak baitira. Jarduera hauek merkatu globalizatuan konpetitiboak izateko zailtasun handia dute gaur egun eta horrek egin du etorkizun ez oso oparotsu bat eskeintzea gizarte honen gazteriarentzat.

Gaur egungo lanpostuak tankera desberdinekoak dira. Eskalaz erabat aldatu egin dira, **espazio txikiago baten beharra duten enpresa zein lan egiteko lekuak direlako gaur egungokoak. Proiektu honetan lanpostu berrien inguruko eztabaida bat jarriko da mahai gainean**, proposamen eta lan egiteko modu berritzaileak jorratuko baitira.

-NON-

Erabilera desberdin hauek Araiako Ajuria eta Urigoitia fabriketan proposatzen dira. Industria honek tankera desberdineko espazioak dauzka, proposatzen diren erabilerentzako oso aproposak izan daitezkenak.

Alde batetik espazio zabal irekiak dauzka, **garaiko laminazio eta fundizio nabeak** zirenak. Hauetan erabilera desberdinak proposatuko dira. Interpretazio zentroaz gain espazio hauek birgaitze prozesu bat izango dute espazio zabalaren beharra duten erabilerak bertan burutu ahal izateko.

Beste alde batetik nabe hauetako gune batzuk **eraikuntza berriak** hartuko dituzte beraien baitan, industria edo enpresa berriak izango direnak.

Beste alde batetik **fabrikaren espazio itxiak** egongo dira, garaian tailer mekanikoak, zura lantzeko espazioak, kutxak egiteko espazioak, bulegoak eta abar zirenak. Hauetako batzuk lan espazio desberdinetarako balioko duten arren esposizio itxiak egiteko espazio moduan erabiliko dira.

Aipatu den moduan erabilera guzti hauetaz gain interpretazio zentro baten funtzioa izango duen ibilbide ireki bat proposatuko da, industria guztian zehar egongo dena.

-NOLA-


Proiektu honetan hiru aktuzio mota desberdin daitezke.

Lehenik eta behin fabrika guztiak bere aktibitatea egiten zuen bitartean **kutsatutako guztia garbitzeko proiektu bat proposatu beharko da**. Kutsadura guzti hau bi motatakoa da. Alde batetik fisikoki dauden elementu kutsakorak kendu egin beharko da, hala nola amianto zein fibrozementuzko txapak kendu beharko dira. Aldi berean lurzorua kutsaduraren konponketa aurrera eramane beharko da. Bigarren hau zailagoa eta garestiagoa izango da baina denbora eta prozesu hori aurrera eramane beharko da gainontzekoak aurrera eramane ahal izateko.


Beste alde batetik **gaur egun dagoen egituren egonkoritu beharko da**, bai nabeen zertxak bai egungo espazio itxienak erabilera berrientzako aproposak izateko.

Azkenik lan profesionalak burutzeko espazioak hartuko dituzten **eraikuntza berriak** proposatuko direnez, hauen kokapen egokia eta teknikoki edozein eraikuntza berri izango duen beharrezko garapenak egin beharko zaizkio.


-Ajuria eta Urigoitia fabrikarren birgaitze proiektuaren ESTRATEGIA-




Ajuria eta Urigoitia fabrikaren gaur egungo egoera.




Nabeen aniztasuna da fabrikari nortasuna ematen diona. Nabe bakoitzak zertxa eta egitura mota bat dauka, bere erabilerari erantzuten ziona. Nabe guztiak erabat irekiak dira, itxitura bertikalik gabeko espazio bat suposatuz.




Fabrikaren mamia zegoen lekuan (labe garaiak, pudelazio labea, labe elektrikoa, mailu hidraulikoa funtzionarazten zuen urjauzia, ...) esposizio guneak jarriko dira, gune hori bere baitan utziko baita. Egingo diren interbentzio bakarrak bere garaian ur jauzia eta lehengaiak labe garaira eroateko zeuden zubi-eraikinak berregitea izango dira.




Ekoizpen espazioak beste sarrera bat izango dute bisitariak daukatenetaz gain. Aparkalekuak eta garraio publikoa kanpoan geratuko dira, langileak zein bisitariak fabrika eta inguruak kanpoko puntuetatik begiratzea "behartuz" (aparkalekuak fabrikaren jartzeak ekarriko lukeen zailtasun teknikoa ekiditzeaz gain).




Ekoizpen guneen eta esposizio guneen artean geratuko den espazioak erabilera desberdinak hartu ditzake: karga-deskarga puntuak, kontzertuak, merkaturak edo ospakizunak bezalako ekintza bereziak, eta abar.



Interbentzioak fabrikaren esentzia mantentzea du helburu. Azalera guztia eraberrituko balitz fabrikaren esentzia guztia galtzea eragingo luke, atal teknikoak eta segurtasun neurriek erabat nabe industrialak eraldatuko lituzkelako. Hori dela eta nabe bakarrean interbenitzea erabaki da, gainontzeko nabe guztietan eta inguru naturalean (lautada, ibaiak, mendietan, ...) gertatzen denaren ikusle bilakatuz. Logistikoki ere ekoizpen espazioen funtzionamendua egokia izan behar da, bisitarien, karga-deskargaren, garraio publikoaren eta langileen mugimenduak desberdinduz.



-Ajuria eta Urigoitia fabrikarren birgaitze PROIEKTUA-



Moduluek fabrikaren zertxaren erritmoari erantzuten diote, hauen arteko hutsunetan sartzen baitirelako enpresa bakoitzaren funtzionamendu espazioak.

Enpresaren tamainaren arabera zertxarteko espazio bakarra edo bikoitza hartzen dute, 1-5 edo 5-10 langile izan dezaketelako.


Modulua bi zatiz osatua dago: Alde batetik altzairuzko egitura egongo da eta bestetik egurrezko bolumenak. Lehenengoa nabearen portikoa jarraitzen duen bi UNP-1600k osatzen dute. Zertxa besarkatuz nabe guztiari itxitura bat eskaintzen diote eta kasuan kasu irtenbide tekniko bat emanaz bai hormigoizko zutabe, estalki eta hormaren leihoei. Bere baitan hartzen duen espazioak ez du klimatizazio ez berokuntza sistamarik izango. Hori dela eta, garrantzi handikoa izango da isolamendu egokia izatea, honekin eta teknika pasiboekin ahalik eta generik etseginena lortu nahi delako.

Bestalde egurrezko bolumen txikiak egongo dira enpresaren tailer, bulego eta biltegi bezala balioko dutenak.

Behe solairuak tailerra hartuko du, bi zatitan berezia, bata itxia (41.07 m²) eta bestea irekia (44.86 m²) . Hauen arteko komunikazioa erabat zuzena da, bi espazioak bat kontsideratu daitezkelarik.


Lehenengo solairuan bulegoak jarriko dira (38.30 m²), tailerrarekin konexio zuzenean daudenak eskilara pribatuei esker.

Hirugarrenez goiko pisua egongo da, enpresa bakoitzaren beharren arabera moldatu ahaliko dena: biltegia, lasaitze gunea, bulegoen gehikuntza, bilera gunea, eta abar. Bertara bulegoen espaziotik igotzeko aukera egongo da, eskilara bertikal baten bidez.




Ebaketa e: 1/100


Behe solairua e:1/125



Lehenengo solairua e:1/125





Bigarren solairua e:1/125




Komunak eta komunikazio bertikala hartzen duen beste bolumen bat egongo da, zertxen arteko espazio bat hartzen duena. Kasu honetan erdiko ibilguneak zabalpuntu bat izango du igogailuaren hall moduan funtzionatuko duena.

Komunei dagokienean desberdinak izango dira behe solairu eta lehenengo solairukoak. Aipatutako lehenengoak aldagela batzuk izango ditu (18.73 m²), tailerretan egiten diren ekintzek horrelakoak beharko dutelakoan eta bigarrenak aldiz komunak izango dira, irisgarriak betiere (18.73 m²).




Ebaketa e: 1/100


Behe solairua e:1/125



Lehenengo solairua e:1/125






Bigarren solairua e:1/125




Enpresa txikien kasuan moduluaren funtzionamendua berdina izango da baina erabiliko den azalera murriztuz, zertxun arteko gune bakarra hartzen baitute. Kasu honetan tailer irekiak 22.08 m² dituzten bitartean tailer itxiak 19.34 m² izango dituzte. Bulegoak 17.83 m²koak izango dira eta hirugarren pisuko guneak 15.65 m².

Hauek 1-5 pertsonetarako pentsatuak daude eta erabilera desberdinak hartu ahal ditu bere baitan.




Ebaketa e: 1/100


Behe solairua e:1/125



Lehenengo solairua e:1/125





Bigarren solairua e:1/125



Moduluaren beste bariazio bat behe solairua aske uzten duen kasua izango da, behe solairuan eraikina zeharkatuko duen gunea librea utzi beharrekotan.


Kasu honetan bakarrik bulegoak hartu behar dituen enpresa tipologiarentzako pentsatuak daude, bata bestearen ondoan jarrita enpresa tamaina desberdinentzako balio dezakeena. Gutxieneko enpresak 30.38 m² ko bulegoa lehenengo pisuan eta 41.88m² ko azalera bigarrenean hartuko dute.

Proiektuan modulu hauek zeharkako mugimenduetan edo fabrikaren erabilera zaharrek oinardean utzitako arrastoen aurrean modu egokian erantzuteko erabiliko dira (ikus ebaketa).




Ebaketa e: 1/100


Behe solairua e:1/125







Lehenengo solairua e:1/125



Bigarren solairua e:1/125






Fabrikaren egongo diren enpresa desberdinek izan dezaketenez erabilera amankomunak hegoaldean ezarriko dira, puntu hori baita fabrikaren sarrerarik garrantzitsuenak, ibairantzko zein errepiderantzko konexiorik zuzenena izateaz gain. Eraikin honek harrera gunea (31.17 m²), biltegi (5.95 m²) eta instalazio gela (24.18 m²) hartuko ditu beheko solairuan. Lehenengo solairuan bi aldagela (41.17 m² eta 36.19 m²) egongo dira, eta azkenengoak jangela bat hartuko du bere baitan (92.85 m²) sukalde txiki batekin.

Enpresen eta bolumen honen arteko hutsunean graderio bat ezarriko da aisialdi moduan momentu lasai bat igaro ahal izateko.


Elementu hau izango da bisitariak izango duen eraikinaren lehenengo irudia. Bolometriak horri erantzuten dion itxura hartuko du, harrera guneari garrantzia ematen dion eta topografiari erantzuten dizkion formak hartuko dituelako.




Fabrikaren iparraldeko gunean dauden nabeak 60.hamarkadan eginikoak dira. Gaur egun kutsatuen daudenak dira eta horregatik etorkizunean, gainontzekoetatik modu independentean funtzionatu behar dute proiektuaren beste fase bat izango balira bezala kontuan hartuko direlako.

Nabeen tipologia eta egituraren egoera onak ahalbidetzen dute erabilera desberdin batzuk egin ahal izatea. Hori dela eta karga altuagoak, material desberdinak edo bolumen desberdin bat behar duten enpresa motei zuzenduak egongo dira.


Tailer irekiaren espazioak azalera handiagoa hartuko du (148.15 m²), hala nola tailer estalia ere (60.44 m²). Komunikazio zuzena izango dute bulegoekin (40.28 m²), bigarren solairuan daudenak eta beste kasuetan gertatzen den moduan, hirugarren pisu erabilgarria izango dute (37.26 m²).




Ebaketa e: 1/100



Behe solairua e:1/125



Lehenengo solairua e:1/125





Bigarren solairua e:1/125


Teilatu-g
37.11 m²


Teilatu-azpia
37.11 m²



- Proiektuaren PLANOAK -













A-A' Ebaketa e:1/500


B-B' Ebaketa e:1/500






D-D' Ebaketa e:1/500


E-E' Ebaketa e:1/500








A-A' Ebaketa e:1/200

B-B' Ebaketa e:1/200









F-F Ebaketa e:1/200

G-G' Ebaketa e:1/200





H-H' Ebaketa e:1/200

